



Urretxuko udala



## UDALAREN OSOKO BILKURA

### 2019ko APIRILAREN 11an EGINDAKO APARTEKO BATZARRALDIA

Elkartutakoak

#### Alkatea

Jon Luqui Albisua, jauna (E.A.J./P.N.V.)

#### Zinegotziak

Igor Zubillaga Aguado, jauna (E.A.J/ P.N.V)

Itziar Agirre Berriotxoa, andrea (E.A.J/ P.N.V)

Maialen Fidalgo Mendizabal, andrea (E.A.J/ P.N.V)

Jon Albisua Garmendia, jauna (E.A.J/ P.N.V)

Oihane Zabaleta Mujika, andrea (EH Bildu)

Iñaki Etxaniz Arregi, jauna (EH Bildu)

Matilde Sanz García, andrea (EH Bildu)

Aitor Otegi Epelde, jauna (EH Bildu)

Fco. Javier Martín Mateo, jauna (P.S.E.-E.E)

Natividad Nieves Medina andrea (P.S.E.-E.E)

Alberto La Rosa Viedma (Irabazi)

#### Ez Bertaratua

Nerea Altolaguirre Berastegui, andrea (EH Bildu.)

#### Idazkaria

María Jose Begiristain Zabalo andrea

#### Kontuhartzailea

Ainhoa Olano Garmendia andrea

Urretxun bi mila eta hemeretziko apirilaren hamaikan.

Arratsaldeko zazpirak direnean, aldez aurretik deitutako aparteko batzarraldia egiteko, Udalbatzarra bildu da udaletxeko batzar areto

En Urretxu a once de abril de dos mil diecinueve.

Siendo las diecinueve horas se reúne en la Sala Capitular del Ayuntamiento el Pleno de la Corporación al objeto de celebrar sesión extraordinaria para la que había sido convocada



## Urretxuko udala



nagusian, goian agertzen diren udal-bazkideak elkarti dira.

Lehendakariak ekitaldiari hasiera eman dio, eta bere aginduz, eguneko gai-zerrendan sartutako gaiei eztabaideatzeari ekin diote

y a la que asistieron los Señores Corporativos que arriba se indican.

Abierto el acto por la Presidencia y de su orden se pasó a tratar los asuntos relacionados en el Orden del Día

1.- GFAk Udalari egindako gomendio kudeaketa, hain zuen ere mendekotasun prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten herriarrek jasotako zaintzaren kalitatearen jarraipena egiteko: gomendioa onartzea eta hitzarmenaren onesprena.	1.- Encomienda de gestión de la DFG hacia el Ayuntamiento para la realización del seguimiento de la calidad de los cuidados recibidos por las personas receptoras de prestación económica por dependencia: aceptación y aprobación de convenio.
2.- Udal-eraikin eta lokalen garbiketa: kontratuaren aldaketa.	2.- Limpieza de edificios y locales: modificación del contrato.
3.- 2020rako herriko jai eguna: proposamena.	3.- Fiesta local año 2020: propuesta.
4.- 2018ko aurrekontuaren kitapena: berri ematea.	4.- Liquidación presupuesto 2018: dación cuenta.
5.- Aurrekontuaren egonkortasuna, finantza jasangarritasuna, eta gastuaren erregelaren betetzeari buruzko kontuhartzailetzaren txostena:  - 1/2019 zenbakia duen kreditu aldaketa espedientea: kreditu txertaketa.  - 2/2019 zenbakia duen kreditu aldaketa espedientea: kreditu transferentziak.	5.- Informe de Intervención sobre cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto:  - expediente modificación créditos nº 1/2019: incorporación de créditos.  - expediente modificación créditos nº2/ 2019: transferencia de créditos.
6.- 2019rako finantza-kontrolaren urteko plana: berri ematea.	6.- Plan anual de control financiero 2019: dación cuenta.
7.- 2019ko Aurrekontua Betearazteko Arauaren aldaketa: hasierako onarpena.	7.- Modificación Norma Ejecución Presupuestaria para 2019: aprobación inicial.



**1.-GFAk Udalari egindako kudeaketa gomendioa, hain zuzen ere mendekotasun prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten herritarrek jasotako zaintzaren kalitatearen jarraipena egiteko: gomendioa onartzea eta hitzarmenaren onesprena.**

Alkate jaunak azaldu duenaren arabera, gizarte zerbitzuen kartera arautzen duen araudia ezartzen du mendekotasuna izateagatik diru-laguntza jasotzen duten pertsonentzako zerbitzuen kalitatearen jarraipena Foru Aldundiaren eskumena dela. Dena den, jarraipen lan hori egiteko, udalei kudeaketa gomendio bat egitea erabaki da, eta horixe da onartzeko proposatzen den hitzarmenaren helburua.

Esan du gainera Urretxun mendekotasuna duten 220 lagun direla zaintza eta prestazioak jasotzen dituztenak, kasu batzuetan familiaren eskutik eta beste batzuetan kanpoko pertsonengandik.

Jarraian aditzera eman du egin nahi den kalitate-jarraipenak etxera bisitak egitea dakarrela, gutxienez bisita bat bi urtetik behin, eta helburua dela baldintza egokiak izatea, arreta aldetik, bizikidetza eta etxebizitzaren bizigarritasuna, zaintzaren kalitatea bermatzea eta gerta litezkeen utzikeria egoeren prebentzia. Lan horren truke, bisita bakoitzeko 75,09 € jasoko du Udalak Foru Aldundiaren eskutik.

Era berean, Alkate jaunak jakitera eman du batzorde informatiboan aipatu zena; hau da, jarraipen honek datu base bat edukitzea ahalbidetuko duela, Udalbatza honek

**1.-Encomienda de gestión de la DFG hacia el Ayuntamiento para la realización del seguimiento de la calidad de los cuidados recibidos por las personas receptoras de prestación económicas por dependencia: aceptación y aprobación de convenio.**

El Sr. Alcalde explica que la normativa reguladora de la cartera de servicios sociales establece que el seguimiento de la calidad de los servicios que reciben las personas receptoras de prestaciones económicas por dependencia es competencia de Diputación Foral. No obstante, se ha acordado realizar una encomienda de gestión en los ayuntamientos para realizar esta labor de seguimiento, siendo esta el objeto del convenio que se propone para su aprobación.

Sigue diciendo que en Urretxu hay 220 personas dependientes receptoras de prestaciones que reciben cuidados, en unos casos de familiares y en otros de personas externas.

Añade que el seguimiento de la calidad que se pretende implica la realización de visitas a los domicilios con una periodicidad mínima de una vez cada dos años, y tiene por objeto comprobar que persisten las condiciones adecuadas de atención, de convivencia y de habitabilidad de la vivienda, garantizar la calidad de los cuidados y prevenir posibles situaciones de desatención. Por esta labor encomendada el Ayuntamiento recibirá por parte de Diputación Foral 75,09 € por visita.

Asimismo, el Sr. Alcalde informa que en la Comisión Informativa se comentó que este seguimiento va a posibilitar disponer de una base de datos que se podrá complementar con los otros dos proyectos acordados por esta



## Urretxuko udala



erabakitako eta 2019ko udal aurrekontuan aurreikusitako beste bi egitasmoekin osatu ahal izango dena: isolamenduari eta etxebizitzaz beharrari buruzko azterlanak. Gai horren harira, jakitera eman du Eskualdeko Enplegu Planean, Urretxurako, lan horiek egiteko pertsona baten kontratazioa sartuko dela.

Gizarte Ekimeneko Batzordearen aldeko diktamena kontuan izanik, eta gaia botoetara eramanda, aho batez erabaki da:

**Lehena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiak Udal honi egindako kudeaketa gomendioa onartzea, hain zuzen ere medenkotasunagatik prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonentzako zerbitzuen kalitatearen jarraipena egiteko.

**Bigarrena.-** Dagokion hitzarmena onartzea, testua hitzez hitz ondorengo hau delarik:

### ADIERAZTEN DUTE

*I.- 24/2017 Foru Dekretuak, abenduaren 12koak, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomía pertsonala eta zainketa sustatzekoak, ezarritako prestazio ekonomikoak arautzen dituela 201 Sko urtarriaren 1az geroztik Gipuzkoan. Prestazio ekonomiko horiek jasotzen dituzten titularrek jasotako zaintzaren kalitatearen aldarri behineko jarraipena arautzen da Foru Dekretu horretako 27. artikuluan, eta bertan xedatzen da Foru Aldundiak udalen bitartez egingo duela jatTaipen hori, betiere udalen ordezkaritzarekin nahikoa 1zango den finantzaketa aurretik adostuta.*

*II.- Foru araudi hori dagoela 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala*

corporación y contemplados en el presupuesto municipal del presente ejercicio 2019: los estudios sobre aislamiento, y de necesidad de vivienda. Al hilo del asunto informa de que en el Plan de Empleo Comarcal se incluirá, para Urretxu, la contratación de una persona para realizar estas labores.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Acción Social, y sometido el asunto a votación, por unanimidad, se acuerda:

**Primero.-** Aceptar la encomienda de gestión realizada por Diputacion Foral de Gipuzkoa a favor de este Ayuntamiento para realizar el seguimiento de la calidad de los servicios recibidos por las personas dependientes receptoras de prestaciones económicas.

**Segundo.-** Aprobar el oportuno convenio, cuyo texto se transcribe a continuación:

### EXPONEN

*I.- Que el Decreto Foral 24/2017, de 12 de diciembre, regula las prestaciones económicas de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia en Gipuzkoa desde el 1 de enero de 2018. Y que en su artículo 27 se regula el seguimiento periódico de la calidad de los cuidados recibidos por las personas titulares de estas prestaciones económicas, estableciendo que el seguimiento lo realizará la Diputación Foral a través de los ayuntamientos, previa financiación suficiente acordada con la representación de los municipios*

*II.- Que esta regulación foral se enmarca en el mandato de la legislación estatal derivada de la Ley*



## Urretxuko udala



sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa eta ondorioz sortutako Estatuko legeriari lotua, zehazki, 1051/2013 Errege Dekretuaren, abenduaren 27koan, 12. artikuluari, hain zuzen. Artikulu horretako 6. atalean xedatzen da:

"Autonomía erkidego edo Administración esquidunak egiaztatuko du prestazoa lortzeko baldintzak eta eskatutako betebeharrak betetzen direla, baldintza horien aldaketarik sor ez dadin, eta une oro kontrolatuko du familia inguruneko zaintzen jarraipena, horren bidez, zaintza horien egokitasuna eta kalitatea egiaztatzeko. Prestazio hori eten edo iraungitzeko eskumena izango du, hala badagokio".

**III.- 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, mendekotasuneko prestazio ekonomikoen inguruko eskumena. foru aldundieei badagokie ere, Gizarte Zerbitzuen Erakunde Artxeko Mahaiaren bame Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Lurrarde Historikoko udalek lankidetza esparru bat adostu dutela zaintzen kalitatearen jarraipena egiteko.**

**IV.- Gipuzkoako Foru Aldundiak ez duela beharrezko giza baliabide eta baliabide materialik jarraipen hori egiteko; eta edonola ere, prestazio horien hartziale diren pertsonai gertuko, etengabeko eta osoko arreta eman ahal izateko, eta kudeaketa publikoa eraginkorragoa egiteko, gomendagarria dela udal gizarte zerbitzuekin lankidetza ezartzea jan hori egin ahal izateko.**

39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, concretamente en el artículo 12 del Real Decreto 1051/2013, de 27 de diciembre, que regula las prestaciones para el conjunto del Estado. El apartado 6 de ese artículo establece que:

"La comunidad autónoma o Administración competente revisará el cumplimiento de los requisitos de acceso a la prestación y de las obligaciones exigidas, a fin de comprobar que no se produzca una variación de cualquiera de los mismos, y controlarán el seguimiento de los cuidados en el entorno familiar, con la finalidad de comprobar la idoneidad y calidad de atención de los mismos, pudiendo en su caso, resolver la suspensión o extinción de la prestación. "

**III.- Que, si bien én virtud del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, la competencia sobre las prestaciones económicas de dependencia corresponde a las diputaciones forales, los ayuntamientos del Territorio Histórico y la Diputación Foral de Gipuzkoa han acordado en el seno de la Mesa Interinstitucional de Servicios Sociales el establecimiento de un marco de colaboración para el seguimiento de la calidad de los cuidados.**

**IV.- Que la Diputación Foral de Gipuzkoa carece de los recursos humanos y materiales necesarios para realizar ese seguimiento y que, en cualquier caso, la eficacia de la gestión pública y la atención cercana, continua e integral a las personas perceptoras aconsejan el contar con la colaboración de los servicios sociales municipales para esta labor.**



**V.- Ondorioz, bi aldeek beharrezkoa jotzen dutela emakida hitzarmen bat sinatzea, hain zuzen ere aldeen arteko betebeharrak arautzeko**

Hori guztia klausula hauen arabera:

#### KLAUSULAK

##### **LEHENNGOA.- Xedea**

Gipukoako Foru Aldundiaren eta Urretxuko Udalaren arteko hitzarmen honen xedea da mendekotasuneko prestazio ekonomikoerri hartzaile diren titularrek jasotako zaintzaren kalitatearen jan·aipena egiteko baldintzak zehaztea, 24/20 I 7 Foru Dekretuak, abenduaren 12koak, 27. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

##### **BIGARRENA.- Kudeaketa mandatua.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, · hitzarmen honen bidez, Urretxuko Udalaren esku uzten ditu udalerrian errodatutako mendekotasuneko prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten titularrek jasotako zaintzaren kalitatearen jarraipena egiteko lanak, eta Udal horrek bere gain hartzen ditu zeregin horiek.

##### **HIRUGARRENA.- Jarraipenaren edukia.**

1.- Udalaren esku utzitako mandatua, hau da, jarraipena, Familia Ingurunean zaintzeagatiko Diru Laguntza jasotzen duten pertsonen inguruan egin .behar da batez ere, eta salbuespen gisa, Laguntza Personaleko Prestazio Ekonomikoa duten pertsonen inguruan. Hala ere, lehentasuna izango du zerbitzu formalen erabiltzaile ez diren pertsonek jasotako zaintzaren kalitatearen jarraipenak.

2.- Jarraipenaren helburua da pertsona horiek arreta baldintza egokiak jasotzen dituztela eta etxebizitzako bizikidetza eta bizigarritasun baldintzak egokiak direla egiaztatzea, zaintzen

**V.- Que, en consecuencia, ambas partes consideran necesario formalizar un convenio de encomienda de gestión que regule las obligaciones mutuas.**

Todo ello con arreglo a las siguientes

#### CLÁUSULAS

##### **PRIMERA.- Objeto**

Es objeto del presente convenio entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Urretxu definir las condiciones para la realización del seguimiento de la calidad de los cuidados recibidos por las personas perceptoras de prestaciones económicas de dependencia, tal y como se define ese seguimiento en el artículo 27 del Decreto Foral 24/2017, de 12 de diciembre.

##### **SEGUNDA.- Encomienda de gestión**

La Diputación Foral de Gipuzkoa encomienda en virtud de este convenio al Ayuntamiento de Urretxu, que acepta, la realización de ese seguimiento de la calidad de los cuidados recibidos por las personas titulares de prestaciones económicas de dependencia empadronadas en el municipio.

##### **TERCERA.- Contenido del seguimiento.**

1.- El seguimiento encomendado debe abarcar principalmente a las personas con Prestación Económica para Cuidados en el Entorno (PECE) y excepcionalmente a las personas con Prestación Económica de Asistencia Personal (PEAP), priorizando el seguimiento a la calidad de los cuidados recibidos por personas que no son usuarias de servicios formales.

2.- El seguimiento tiene por objeto comprobar que persisten las condiciones adecuadas de atención, de convivencia y de habitabilidad de la vivienda,



## Urretxuko udala



*kalitatea bermatzea eta arreta gabezia egoera posibleei aurrea hartza.*

*3.- Jarraipen hori egiteak esan nahi du prestazioa jasotzen duen pertsonaren etxebizitzara bisitaldia egin beharko dela, bi urtez behin gutxienez.*

*Mendekotasuneko prestazio ekonomikoa jasotzen duen pertsona gizarte zerbitzu formalen erabiltzaile ere bada, modu berezian bestelako jarraipen modalitateak erabili ahal izango dira etxeeko bisitaldiaren ordez, ala nola gizarte zerbitzuen bulegoetan egindako elkarrizketa pertsonala edo telefono bidezko elkarrizketa.*

*4.- Bisitaldi horietan, informazioa, orientabidea eta aholkularitza emango zai mendekotasun egoeran dagoen pertsonari eta zaintzaileari*

*5.- Onuradunaren espedientean erregistratu beharko da jarraipen jardnketaren bakoitza, bertan lortutako oinarrizko informazioarekin hatera (ikus Hitzarmen honetako II. Eranskina). Halaber, jarraipen jardnketaren ondorioz, egoeraren egokitasun mailaren balioespresa egin beharko da: handia, ertaina edo apala izango dena.*

### **LAUGARRENA.- Udalaren betebeharra.**

*Udalaren betebeharra izango dira:*

*1.- Jarraipena hirugarren klausulan xedatutako baldintzetan egiteko giza baliabideak eta baliabide materialak erabiltzea.*

*2.- Jarraipen jarduketen ondorioz lortzen den informazioa Gizarte Politikako Departamentuaren Extranetearen jasotzea, dagokion atalean, hain zuzen.*

*garantizar la calidad de los cuidados y prevenir posibles situaciones de desatención.*

*3.- El seguimiento implica la visita al domicilio de la persona, y la periodicidad mínima de esa visita será de una vez cada dos años.*

*En el caso de que la persona perceptora de la prestación económica de dependencia sea usuaria también de servicios sociales formales la visita domiciliaria podrá ser puntualmente sustituida por otras alternativas, como una entrevista personal en las propias oficinas de servicios sociales o una entrevista telefónica.*

*4.- En la visita se ofrecerá información, orientación y asesoramiento a la persona en situación de dependencia y a la persona cuidadora.*

*5.- Cada actuación de seguimiento debe quedar registrada en el expediente de la persona beneficiaria, junto a la información básica obtenida en la misma (ver Anexo II a este Convenio), y su resultado debe dar lugar a una valoración del nivel de adecuación de la situación como alta, media o baja.*

### **CUARTA.- Obligaciones del Ayuntamiento.**

*El Ayuntamiento se obliga a:*

*1.- Destinar los recursos humanos y materiales necesarios para realizar adecuadamente el seguimiento en los términos establecidos en la cláusula tercera.*

*2.- Integrar la información resultante de las actuaciones de seguimiento en el apartado correspondiente de la Extranet del Departamento de Políticas Sociales.*



## Urretxuko udala



3.- Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea hitzarmen honen betetzea modu nabarmenean erasan dezakeen edozein baldintza.

### **BOSGARRENA.-Gipuzkoako Foru Aldundiaren betebeharraak.**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren betebeharraak izango dira:

1.-2019an, hitzarmenaren indarraldiko lehenengo urtean, I. Eranskinean xedatutako zenbatekoak ordaintzea Urretxuko Udalari,, egindako Jarraipen Jarduketa bakoitzeko

Hitzarrnenaren indarraldiaren lehenengo urtea igaro ostean, jarraipen jarduketa bakoitzean egin beharreko zereginen batez besteko bolumena ebaluatuko da, eta I. Eranskinean xedatutako zenbatekoa zeregin horiek hartzen duten denborari estaldura emateko nahikoa den egiatzatuko da. 2020. urtetik aurrera, eta hitzmenaren indarraldian zehar, ebaluazio horren emaitzen arabera, zenbateko hori doitzen joango da, eta ala behar balitz aipatutako eranskina aldatuko da

2.- Udalerrrian mendekotasuneko prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonei buruzko informazio eguneratua ematea udalari, hain zuzen ere jarraipena · egin beharreko pertsonei buruzkoa.

3.- Gizarte Politikako Departamentuko Extranetean beharrezko egokitzapenak egitea, jarraipen jarduketen emaitzak erregistratzeko

4.- Hitzarmen honen xederako berariazko laguntza teknikoa.eskaintza.

### **SEIGARRENA.- Foru finantzaketaren ordainketa.**

1.- Sei hilabetez behin, zehazki, uztailaren 31

3.- Comunicar a la Diputación Foral de Gipuzkoa cualquier circunstancia que pueda afectar de manera relevante al cumplimiento del presente convenio.

### **QUINTA.- Obligaciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa.**

La Diputación Foral de Gipuzkoa se obliga a:

1.- Abonar al Ayuntamiento de Urretxu en 2019, primer año de vigencia del convenio, los importes establecidos en el Anexo I por cada actuación de seguimiento realizada

Una vez finalizado el primer año de vigencia del convenio, se evaluará el volumen medio de tareas a realizar en cada actuación de seguimiento a los efectos de determinar si el importe previsto en el Anexo I da cobertura adecuada a tiempo destinado a las mismas. A partir de 2020, y durante los años de duración del convenio, dicho importe se ajustará a lo que resulte de tal evaluación, modificándose en su caso el citado anexo.

2.- Facilitar periódicamente al ayuntamiento la información actualizada sobre las personas perceptoras de prestaciones económicas de dependencia del municipio que vayan a ser objeto de seguimiento.

3.- Realizar las adaptaciones necesarias en la Extranet del Departamento de Políticas Sociales para registrar el resultado de las actuaciones de seguimiento.

4.- Ofrecer asistencia técnica específica para el objeto de este convenio.

### **SEXTA.- Abono de la financiación foral.**

1.- La Diputación Foral de Gipuzkoa abonará



baino lehen eta dagokion urtearen amTekontuaren itxiera baino lehen, I. Eranskinean 2019rako zenbatekoak ordainduko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hurrengo urteetan, bosgarren klausulan xedatutako prozesua dela eta zehazten diren zenbatekoak ordainduko ditu, aurreko seihilekoan Extraneten erregistratutako jarraipen jarduketa kopuruaren arabera.

2.- Seihileko. natural bakoitzaren bukaeran egingo diren ordaiuketak egiteko orduan, urte bakoitzeko ekaina eta abendu amaierako egoerak hartuko dira erreferentzia gisa.

**ZAZPIGARRENA.- Jarraipen batzordea eta auzien ebazpena.**

Hitzartutako baldintzen jarraipena aztertzeko, eta bereziki 1. Ataleko bosgarren klausulan xedatutako ebaluazioa egin ahala izateko, bi alde sinatzaileek adosten dute batzorde bat osatu ahal izango dutela, eta bi aldeek ordezkaritza parekidea izango dutela bertan.

**ZORTZIGARRENA.-Hitzarmena suntsiarazteko eta iraungitzeko arrazoiak.**

Hitzarmen hau suntsiarazi edo iraungitzeko arrazoiak hauek izango dira:

1.- Alderdi sinatzaileek hala adosten badute.

2.- Aldeetako batek hitzarrnenari uko egiten badio, indargabetzearen data aurreikusia baino gutxienez bi hilabete lehenago jakinarazi beharko dio beste aldeari

3.- Aldeek hitzarmen honetan xedatutako betebeharrak eta baldintzak ez betetzea.

semestralmente, antes del 31 de julio y del cierre presupuestario del ejercicio correspondiente, respectivamente, las cuantías establecidas en el Anexo I para el año 2019, y las que resulten del proceso previsto en la cláusula quinta, para los años siguientes en función del número de actuaciones de seguimiento registradas en la Extranet en el semestre anterior.

2.- Para los abonos a semestre vencido se tomará como referencia la situación al finalizar los meses de junio y diciembre de cada año.

**SÉPTIMA.- Comisión de seguimiento y cuestiones litigiosas.**

Para analizar el seguimiento de las condiciones pactadas, y en particular para la evaluación establecida en la cláusula quinta apartado 1, las partes firmantes acuerdan que se podrá constituir una comisión en la que ambas estarán representadas de manera paritaria.

**OCTAVA.- Causas de resolución y extinción.**

Para la resolución o extinción del convenio deberá producirse alguna de las siguientes causas:

1.- El mutuo acuerdo entre las partes firmantes.

2.- La renuncia al convenio de una de las partes que deberá notificarlo a la otra con una antelación mínima de dos meses a la fecha prevista de resolución

3.- El incumplimiento de las partes de las obligaciones y condiciones previstas en el convenio.



#### **BEDERATZIGARRENA.-juridikoa.**

1.- Hitzannen honek izaera administratiboa du, eta urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak zuzenduko ditu hareii interpretazioa eta garapena.

2.- Hitzarmena interpretatzean eta betetzean sor daitezkeen auziak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ezagutza eta eskumenekoak izango dira.

#### **Hamargarreña.- Hitzarmenaren indarraldia eta egunberatzea.**

1.- Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak. 2019ko abenduaren 31 bitarteko indarraldia izango du.

2.- Hitzarmen hau urte natural bakoitzaren amaieran isilbidez luzatuta dagoela joko da, baldin eta Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrekontu esleipeen egokia badu hurrengo ekitaldirako. Hitzarmenaren eta horren luzapenen iraupena 8 urtekoa· izango da gehienez.

3.- Hitzatmen honetan xedatutako zenbatekoak urtero eguneratuko <lira, hitzarmen honetako bosgarren klausulan xedatutako ebaluazioaren arabera, zenbateko horiek aldatu beharra erakutsi ezkerro. Edozein kasutan, aldaketa horrek muga bat izango du, eta hori sektore publikoaren zerbitzura dagoen pertsonalaren ordainsariak jasandako igoera izango da, esparruar ekonomiaren desindexazio Legea garatzen duen 55/2017 Erret Dekretuaren 5. artikuluak ezartzen duenez.

#### **HAMAIKAGARRENA.- Izaera pertsonaleko datuak**

Hitzarmen honen esparruan garatzen diren datu eta jardueren tratamendua izaera pertsonaleko datuen babesaren arloan indarrean dagoen legeak ezarritakoari jarraituz arautuko da,

#### **NOVENA.- Régimen jurídico.**

1.- El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiendo en su interpretación lo dispuesto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

2.- Las cuestiones litigiosas que puedan surgir en su interpretación y cumplimiento serán de conocimiento y competencia de la jurisdicción contencioso-administrativa.

#### **DÉCIMA.- Vigencia y actualización del convenio.**

1.- El presente convenio entrará en vigor el día de su firma, con efectos económicos desde el 1 de enero de 2019 y su vigencia se extenderá hasta el 31 de diciembre de 2019.

2.- El convenio se entenderá tácitamente prorrogado a su finalización por períodos de 1 año natural, siempre que la Diputación Foral de Gipuzkoa cuente con consignación presupuestaria adecuada para el ejercicio prorrogado. La duración del convenio y sus prórrogas no podrán exceder de 8 años.

3.- Los importes contemplados en este convenio serán actualizados anualmente si existieran variaciones como consecuencia de la evaluación prevista en la cláusula quinta de este convenio. En cualquier caso esta variación tendrá como límite el incremento experimentado por la retribución del personal al servicio del sector público, conforme a lo dispuesto por el artículo 5 del Real Decreto 55/2017, de 3 de febrero, por el que se desarrolla la Ley de desindexación de la economía española.

#### **UNDÉCIMA.- Datos de carácter personal**

El tratamiento de datos y actividades que se desarrollen en el marco del presente convenio se regirá por lo establecido en la legislación en materia de protección de datos de carácter



*Horretarako, ardura duten entitateek tratamenduaren arduradun izaera izango dute.*

*personal vigente en cada momento. A tales efectos, las entidades encomendadas tendrán la condición de encargado del tratamiento.*

**Hirugarrena.-** Alkate jaunari ahalmena ematea behar diren agiri guztiak sinatzeko.

## **2.- Udal-eraikin eta lokalen garbiketa: kontratuaren aldaketa.**

Kontuan izanik 2015eko maiatzaren 21eko Udalbatzak, udal eraikin eta lokalen garbiketa egiteko programa KELSALIM S.L.-ri esleitu ziola , prozedura irekiaren bidez, eta honako prezioan: urteko 282.000 € (BEZ barne).

Aipatutako kontratua 2014ko abenduaren 23an Udalbatzak hartutako erabakiaz onartutako Klausula Administratiboen eta Oinarri Teknikoen Zerrendei eta esleipendunak aurkeztutako proposamenari lotuta dagoela kontuan harturik.

Kontuan izanik, kontratuaren epea 2015eko uztailaren 1ean hasi zela bere iraupena bi urtetakoia izanik, eta luzapenak egiteko aukera ere aurreikusten direla. Une honetan bigarren luzapena indarrean dago.

Kontuan izanik 2016ko irailaren 29an hasierako kontratua aldatu zela, Mugitegin dagoen udal brigadaren aldagela asten behin garbitzeko. Aldaketa honen urteko prezioa 1.879,49 eurokoa izan da.

**Tercero.-** Facultar al Sr. Alcalde para la firma de cuantos documentos sean precisos al efecto.

## **2.- Limpieza de edificios y locales: modificación del contrato.**

Resultando que por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 21 de mayo de 2015 se procedió a la adjudicación, mediante procedimiento abierto, a KELSALIM S.L la limpieza de los edificios y locales municipales, por importe de 282.000 € anuales.

Resultando que el referido contrato está sujeto a los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y de Prescripciones Técnicas aprobados por el Pleno de la Corporación en sesión celebrada el día 23 de diciembre de 2014 y a la propuesta presentada por el adjudicatario.

Resultando que el plazo de dicho contrato se inició el 1 de julio de 2015 teniendo una duración de dos años con posibilidad de prorrogas. En este momento se encuentra vigente la segunda prorroga.

Resultando que con fecha 29 de septiembre de 2016 se procedió a la modificación del contrato primitivo para proceder a la limpieza del vestuario de la brigada municipal de obras sito en Mugitegi, una vez por semana. El importe de esta modificación fue de 1.879,49 € anuales.



## Urretxuko udala



Kontuan harturik 2018ko uztailaren 12an hasierako kontratua berriro aldatu zen, Sarraldeko entsegu-lokalak astean behin garbitzeko. Aldaketa honen urteko prezioa 2.263,55 eurokoa da (BEZ.barne).

Kontuan izanik 2019 urtean beste behar berri sortu direla, hasieran ez aurreikusiak, berriak direlako edo instalazioaren erabilera edo kudeaketa aldatu delako:

-Uda sasoian, ekainaren erditik irailaren erdialdera, Pagoetako udal igeilekuak irekitzen dira. Hasieran, froga moduan, igerilekuen kudeaketa aldatu egin zen, eta honen ondorioz egokiagoa ikusi da instalazio hauek espezialiatua den enpresak egitea.

- Ederrena pilotalekuaren ondoan dagoen lokalak, Mairi elkarteari utzita dagoena, ondo mantentzeko asteroko garbiketa behar du.

-Hemendik gutxira bi obra berri bukatuko dira: pixatokiak dituen komun publikoa, eta Lizeo eta Labeaga kalea lotzen duen igogailua. Biek, ondo osasun baldintzak bere onean mantendu ahal izateko garbiketa eskatzen dute.

Esleipendunari entzute-tramitea eman ondoren honako proposamena aurkezu du:

### Piscina:

Limpieza diaria- de lunes a domingo- de vestuarios y baños, de entradas y accesos, de zona de control y botiquín. Traslado y colocación de contenedores.

Resultando que con fecha 12 de julio de 2018 se procedió a una nueva modificación del contrato primitivo para proceder a la limpieza los locales de ensayo de Sarralde, una vez por semana. El importe de esta modificación fue de 2.263,55 € anuales, IVA incluido.

Considerando que durante el presente año 2019 han surgido nuevas necesidades no previstas con anterioridad, bien por ser de nueva creación, bien porque se ha modificado su uso o su forma de gestión:

- En la temporada estival, desde mediados de junio hasta mediados de septiembre, se procede a la apertura de las piscinas municipales Pagoeta, y tras haber realizado, con carácter de prueba, una modificación en la forma de gestionar y prestar el servicio, se ha considerado como más adecuado, el que la limpieza de las piscinas municipales se lleve a cabo por empresa especializada.

- El local anexo al frontón Ederrena cuyo uso está cedido a la asociación Mairi, para su buena conservación necesita de una limpieza semanal.

- En breve finalizarán las obras de instalación de aseos públicos dotados de urinarios, y las obras de instalación del ascensor que conecta el patio del Liceo con la c/Labeaga. Ambos para un correcto mantenimiento de sus condiciones de salubridad, demandan también de una limpieza.

Resultando que otorgada audiencia a la contratista, esta ha propuesto el siguiente precio:

### Piscina:

Limpieza diaria- de lunes a domingo- de vestuarios y baños, de entradas y accesos, de zona de control y botiquín. Traslado y colocación de contenedores.



## Urretxuko udala

